

Ezkio-Itsaso. Igartubeiti Museoa "Igartubeitiko zeramika tailerrean hogeita hamar gaztetxoek parte hartu zuten"

Atzokoan ere jai giroa izan zen nagusi Igartubeiti Baserri Museoan. Orain arte bezala tailer bat prestatuta zegoen eta inoiz baino ume gehiago parte hartu zuten honetan, arratsaldeko lauetatik aurrera.

Pott keramikako Maite Salutregi eta Jone Urain izan ziren atzoko tailerreko arduradunak. Ume asko zeuden bertan eta bi talde handi egin zituzten hauek antolatzeko, bakoitza mahai handi batean kokatuz.

Buztina banatu, zer egin behar zuten azaldu eta ume guztiak lanean hasi ziren: lasto tontorrak, txerriak... gogoz ibili ziren atzo arratsaldean hogeita hamar txikiak, beraien gurasoen begiradapean.

Lanak amaitu eta bakoitzak bere izena jarri ondoren, arratsaldeko 18:00ak aldera sabela betetzeko momentua iritsi zen. Hilabeteko azken ekintza zenez, eta martxoa ondo amaitzeko Igartu merienda gozoa dastatzeko aukera izan zuten bertaratutako guztiek: irasagarra, gazta, intxaurrak,

Igartubeitin bertan egindako sagar zuku naturala... Gogoz jan zute txiki eta helduek honekin larunbateko ekintza berezi honi amaiera emanez. Hurrengo hilabetea, eta orain arte izandako ekitaldien arrakasta kontutan izanda, larunbatetan ekintzak antolatzen jarraitzeko asmoa dutela azaldu dute Igartubeitikoek.

M . GALILEA